

Soviet Batasunaren zatiketa

Soviet Gorenak amaitu du Estatu kolpearen ondorengo batzarra

Azken egunean kolpe saialdia ikertzeko komisioaren osaketa onartu zuen


Atzo amaitu zen Soviet Gorenak Estatu kolpe saialdiaren ondoren antolatutako ezohizko bilera, eta bihar hasiko da berriz, SESBeko Diputatuen Ezohizko Kongresua Soviet Goren berria osatu eta Baltikoko errepublikan independentzia onartu ala atzera botatzeko. Atzoko bileran, Estatu kolpea ikertzeko komisioa antolatu zuten.

MOSKU

Bilera hasi aurretik, Ivan Laptev-ek, SESBeko Legebiltzarreko Batasun Ganbarako lehendakariak onartu zuen Diputatuen Kongresuak seguru-rik Baltikoko errepublikan independentzia onartuko duela. Hain zuzen, bihar dira biltzekoak diputatu soviatarrek eta Lituania, Estonia eta Letoniaren independentziaren onarpena eztabaidagaietako bat izango da.

Debate gogorretan iragan diren sei egun hauetan, Soviet Goreneko diputatuek erresoluzio garrantzitsuak erabaki dituzte kolpe saialdiari buruz. Erresoluzio horietako batek, Alderdi Komunistaren ekintza guztiak debekatzeko, eta beste batek, berriz, Mikhail Gorbaxov lehendakari soviatarren botereak murrizten ditu.

Atzoko bileran, diputatuek legebiltzarkideek osaturiko komisio bat eratzea onartu zuten, «Estatu kolpearen zergatiak eta zirkunstantziak ikertzeko». Komisio hau sortzea aldeko 361 botoekin onartu zen eta



Rafik Nixanov eman zion amaiera Soviet Gorenaren Kongresuari.

soilik kontrako boto bakar bat jaso zuen.

Komisio honek izango dituen eginkizunik garrantzitsuenak Estatu kolpea antolatu zutenen helburu eta zergatiak aztertzea izango da, eta saialdi horretan zeintzuk hartu zuten parte ikertzeko. Era berean ikertu beharko dute saildian erakunde sozialek jokatutako papera, beren buruzagiek jokatutakoa eta legedi soviatarren akatsak zeintzuk diren erabaki beharko dute. Komisio honek eskuak libre izango ditu eta berak eskatutako guztiak deklaratu

beharko dute. Hogeitamalau lagunek osatuko dute komisioa, baina oraindik ez dira erabaki bere partaideak, hasera batean erreformistez osaturikoa bazen ere, legebiltzarkide gehienek proposamen hori atzera bota zuten erreformista gehigik osatzen zutelako eta errepubliketako ordezkari gutxiak.

Ivan Silaiev Errusiako Lehen ministroak SESBeko Lehen ministro

✓ Ivan Laptev-ek, baieztatu zuen Diputatuen Kongresuak seguru-rik Baltikoko errepublikan independentzia onartuko duela

izateko eskaintzari uko egin zion. Kargu hau Valentin Pavlov-en eskuetan zegoen atxilotu zuten arte. Silaiev Iharduneango Gobernua arazo ekonomikoetaz arduratzen zen. «Seguraski Mikhail Gorbaxov ez da oso gustora egongo nire erabakiarekin», adierazi zuen. Silaiev komunista moderatua izatetik Boris Ieltsinen konfidantzako gizona izatera pasa zen eta ospe handia du SESBeko sektore progresistan.

Silaiev-ek egin zuen bezala, Askar Akaiev Kirgizistaneko lehendakariak ere Moskuk proposaturiko lehendakariordearen karguari uko egin zion. Akaiev-ek bere errepublikako lehendakari ezin zuela utzi adierazi zuen. Kirgizistaneko lehendakaria erreformista sutsua da eta Moskun estatu kolpea jo zutenean berehala azaldu zuen bere desadostasuna beste errepublikan isiltasunaren erdian. Kirgizistanek bere jarrera nazionalista sendotu egin du eta orain Erresuma Batuak bere koloniak izan zirenekin duen Commonwealth bezalako osatu nahi du SESBeko beste errepublikekin.



★ **EUROPA**ko Segurtasun eta Kooperazio Konferentziak irailaren 10ean egin behar zuten atzera zitekeela adierazi zuten iturri soviatarrek. Builera Soviet Batasuneko hiriburuan egitekoa zen eta estatu kolpearen ostean zegoen egoera zela eta prestaketa lanek atzeraketa jasan zezaketela azaldu zuten soviatarrek. Dena dela soviatarrek konferentzian oso interesaturik zeudela ere esan zuten, batez ere giza eskubideen arazo tratatu nahi zutelako.

★ **ITALIA** harreman diplomatikoetan hasi zen Estoniarekin. Italiako Atzerri ministroa Claudio Vitalone eta Estoniakoa Rein Mullerson harremana arautuko zuten akordioa sinatu zuten Tallin, Estoniako hiriburuan. Vitalonek azaldu zuenez Europako Komunitateko partaideek Nazio Batuei Baltikoko errepublikak onar ditzan eskatu zion. Era berean irailaren seian Europako Atzerri ministroek egingo duten bilerara Baltikoko errepubliketako ordezkariak gonbidatu zituztela ere adierazi zuen ministroa italiarrak. Bestetik, Estoniak Nazio Batuetan sartzeko eskaera egingo du.

★ **ALEMANIA**ko sozialdemokratik Bonn-eko agintariari eta mendebaldeko nazioei SESBera dirurik bidali ez zezaten eskatu zuten. Finantzetan adituak diren diputatu sozialdemokraten esanetan «gaur egun Moskuko agintariari dirua eskaintzea lehiotik botatzea bezala da». Sozialdemokratik SESBera elikagaiak bidali behar zirela azpimarratu zuten eta ez dirua, gaur egun ezin zelako inon inbertitu.

★ **AZERBAIDJAN**eko errepublikako hainbat herriska «gerrilari armeniarren» bonbardaketaren kausaz hildako bat eta bi zauritu izan zirela adierazi dute Baku-ko iturri azeriarrek. Armeniarrek «etengabe bonbardatu zituzten» hiru herriska Geranboiski eskualdean.

Uzbekistan eta Kirgizistanekin hamar dira errepublika independentistak

MOSKU

Soviet Batasuneko Uzbekistan eta Kirgizistan errepublikek bere independentzia aldarrikatu zuten atzo, «Interfax» agentziak adierazi zuenez. Errepublika hauen erabakiarekin dagoeneko Batasuna osatzen dutenetatik hamarrek hartu dute independente izateko erabakia.

Uzbekistanek independentzia deklarazioa errepublikako Legebiltzarrean onartu zen eta erakunde honek hartutako erabakia ospatzeko festa egun bezala ezarri zuen irailaren bata. Kirgizistaneko biltzarrek datoren urriaren 12rako Lehendakari-tzarako hauteskunde zuzenak deitu zituen. Uzbekistan ia hogeitaz milioi biztanle eta 447.000 kilometro karratuko errepublika kaukasiarra da. Populazioaren % 85 uzbekiarrak da eta % 10.8 berriz errusiarrak. 1917an Taxkent hiriburuko sovieta-ekin

✓ Krabtxuk: «Ukrainiarentzat ez du zentzurik SESBaren barnean lehen bezala egotea, bai ordea konfederazioa edo Europako antzerako egitura osatzea»

hartu eta 1925ean Soviet Batasuneko federazioaren barnean onartu zuten.

Kirgizistaneko lau milioi biztanleetatik laurdena berriz errusiarrak da. 1936an errepublika federatu bihurtu zen Ertasiako herri turko hau. Kirgiziarrek erdi nomadak dira jatorriz, baina orain iharduera nagusiak nekazaritza eta Soviet Batasunetik ekarritako industria dira (zur, energia, metaleak,...).

✓ **UKRAINIAK KONFEDERAZIOA NAHI** Ukrainiak konfederazioa osatu nahi zuela adierazi zuen Leonid Kravtxuk errepublika honetako Legebiltza-

reko lehendakariak. «Ukrainiarentzat ez du zentzurik SESBaren barnean lehen bezala egotea, bai ordea konfederazioa osatzea edo Europako Komunitatearen antzerako egitura ezartzea», adierazi zuen Kravtxuk-ek.

Batasun berria eremu ekonomiko amankomuna eratzeke eta defentsa arazoetarako soilik ezarriko zela azaldu zuen Anatóli Slenko Ukrainiako Atzerri ministroak. Ukrainiako agintariak SESBaren kontrolrik gabeko desengiketa deuseztu nahi zuten eta horretarako Kazakhstan eta Ertasiako errepublikekin akordioak sinatu nahi dituzte.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

91 / 92KO BEKA UNIBERTSITARIOAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dirulaguntza eta beka jakinarazten ditu Administrazio-egoitza Euskal Herriko Autonomi Elkartearen eta 1991 / 1992 ikasturtean unibertsitate-ikasketak egiten ari direlarik kasuan kasuko deialdietan finkatzen diren baldintzak betetzen dituzten ikasleentzat.

A. LAGUNTZA OROKORRAK (1991KO VIII-14KO EHAAN)

EPEA: 1991ko irailaren 1etik urriaren 15era.

ESKAKIZUN AURKEZPENA: Eskakizuna eta beharrezko dokumentazioa bere ikasketak egingo dituen zentroan aurkeztuko ditu ikasleak.

B. LAGUNTZAILE BEKAK (1991KO VIII-14KO EHAAN)

Estatuko edozein zentrun Unibertsitate mailako ikasketetako azken bi urteak egiten ari diren ikasleentzat eta ikasketen osagarritzat hiru ordutako laguntza eman dezaten ikasleei zuzendua.

EPEA: 1991ko irailaren 1etik 30era.

ESKAKIZUN AURKEZPENA: Eskakizuna eta beharrezko dokumentazioa Unibertsitate Zuzendaritzara bidaliko da. 91 / 92 laguntzaile beka Erref., Wellington Dukea kalea, 2 - 01011 GASTEIZ.

C. OHIZ KANPOKO GARRAIO-LAGUNTZAK

Euskal Herriko Autonomi Elkartearen ikasten ari diren eta bizigunetik ikastetxera egunero egunero, gutxienez 25 kilometroko ibilbidea duten ikasleentzat.

OHARRA: Unibertsitateen bitartez, deialdia egokiro iragarriko da.